ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko urriaren 16a, ostirala • 119 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGUARDIAKO UDALA

Laguardiako udaleko langileen plantillan hutsik dauden bi (2) behargin plazaren oposizio-lehiaketa irekia

Alkatearen ebazpena, zeinaren bidez agintzen baita argitara dadila Laguardiako Udaleko langileen plantillan hutsik dauden bi (2) behargin plaza oposizio-lehiaketa irekiaren bidez betetzeko hautaketa prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda.

Aztertu da Laguardiako Udaleko langileen plantillan hutsik dauden bi (2) behargin plaza betetzeko oposizio-lehiaketa irekiaren 285/2025 espedientea.

Izangaiak aurkezteko epea igaro da, 2026ko otsailaren 18ko ALHAOren 21. zenbakian eta 2026ko martxoaren 6ko Estatuko Aldizkari Ofizialaren (BOE) 58. zenbakian argitaratutako argitalpenen arabera.

Aztertu da 2026ko irailaren 23ko ALHAOn (109. zk.) argitaratutako iragarkia, zeinaren bidez argitaratu baitziren onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda eta baztertzeen arrazoiak.

Behin-behineko zerrenda horren aurkako alegazioak edo erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta aurkeztutakoak aztertu eta ebatzi ondoren, bat etorriz deialdiaren zazpigarren oinarriarekin eta indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta, zehazki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluaren g), h) eta s) apartatuek emandakoez (EDL 1985/8184), honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. 2026ko irailaren 23ko ALHAOn (109. zk.) argitaratutako ebazpenaren bidez behin-behinean baztertutako pertsona guztiak sartzea onartutakoen behin betiko zerrendan. Izan ere, eskaera zuzendu dute, deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela berariaz adierazita.

BIGARRENA. Onespena ematea Laguardiako Udaleko langile plantillan hutsik dauden bi (2) langile plaza lehiaketa oposizio irekiaren bidez betetzeko hautaketa prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrendari. Adierazten da ez dela inor geratu prozesutik baztertuta, apartatu honetako onartutako pertsonen behin betiko zerrendaren arabera.

Onartutakoen behin betiko zerrenda

DOKUMENTUA	IZEN-ABIZENAK
***1084**	ANDONI TOLOSA ECHEVARRIA
***8744**	CRISTIAN ROSADO MARTINEZ
***8671**	DANIEL PUELLES SAN PEDRO
***8037**	EGOITZ RANDEZ LORENZO
***9708**	GAIZKA BRACERAS MURGA
***3155**	GALDER ABECIA MOSQUERA
***8053**	IBAI FERNANDEZ GARCIA
***9627**	IGNACIO FERRERAS MARTINEZ
***2175**	IMANOL GARCIA GARCIA
***1039**	IÑAKI ARMAS URIBE

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

DOKUMENTUA	IZEN-ABIZENAK
***9735**	JAVIER RAMIREZ DE OLANO FERNANDEZ
***9831**	JON DIAZ BERNEDO
***4352**	JORGE SANCHEZ GONZALEZ DE SAN PEDRO
***5156**	JOSE LUIS BERECIARTUA GACETABEITIA
***9761**	JOSE ROBERTO GARCIA DE OLANO SAN PEDRO
***0689**	LORENZO BRIONES LOPEZ
***0197**	LUIS CID YANGÜELA
***9278**	LUIS MARIA SALGADO GONZALEZ
***8587**	ROBERTO BAZ MURO
***8838**	SANTIAGO ELEJALDE LEON
***1312**	VIOLETA RUIZ BERMUDEZ

BIGARRENA. Ebazpen hau ALHAOn, udal honen egoitza elektronikoan (www.laguardia.eus) eta ediktu taulan argitaratzea.

HIRUGARRENA. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea hurrengo ohiko bilkuran.

LAUGARRENA. Onartuei jakinaraztea hautaketa prozesu honi dagozkion gainerako jakinarazpenak Laguardiako Udalaren webgunearen bidez eta ediktu taularen bidez egingo direla, bat etorriz deialdiaren oinarrietan ezarritakoarekin.

BOSGARRENA. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu ondorengo egunetik aurrera, bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin, hargatik eragotzi gabe zuzenbidean onartutako beste edozein aurkaratze bide erabiltzea.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan ere aurkaratu ahal izango da zuzenean, bi hilabeteko epean, salbu eta aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu bada; kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu jarritako berraztertzeko errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo presuntzioz ezetsi arte.

Laguardia, 2026ko urriaren 8a

Alkate-lehendakaria
RAÚL GARCÍA EZQUERRO

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.10.16 05:47:04 Z